



2022ko Igeldoko sanpedroetako Umore Horia lehiaketa.

## Ttonttorro, zerura igotzeko prest; badatoz Igeldoko sanpedroak

Bihar piztuko da jai giroaren txinparta Igeldon, nahiz eta, ofizialki, hilaren 26an hasiko diren festak. Ttonttorro jai batzordearen kudeaketari eta herritarren auzolanari esker, egitarau oparoa ondu dute. Leire Barroso batzordeko kideak eman ditu xehetasun guztiak.

✎ Nagore Garmendia Artano  
 📷 Beñat Parra Rodriguez

**U**da ate joka dugu, eta berarekin batera, Igeldoko kaleak ilusioz eta musikaz janzteko prest daude: bihar lehertuko da festaren txinparta San Pedro jaiekin. Festen atariko gisa, aurtengo krosa larunbat goizera ekarri dute. Helduen oinkadek irekiko dute bidea, eta, sariak banatu ostean, haurren txanda izango da. Herriko txikienean lasterketa izaten da jarduerarik jendetsuenetariko bat, Leire Barroso Ttonttorro jai batzordeko

kideak azaldu duenez.

San Joan bezperak, berriz, kutsu magikoagoa izango du. Arratsaldeak aurrera egin ahala, txaranga edo txarparroi zaratatsua prestaketak eta fajita jate goxo batek berotuko dituzte gorputzak, eta, gaueko iluntasunean, etxez etxeko kantuek eta bertsolarien ahotsak entzungo dira, txoko guztietan.

### Energia berrien eztanda

Festen benetako taupada, ordea, hilaren

26eko 20:00etan hasiko da. Ordu horretan igoko da zerura Txonttorro, herriko astotxo maitea. Aurtengo txupinazoa, gainera, esangura handikoa izango da: izan ere, IKE (Igeldoko Kontsumo Ekologikoa) kooperatibak piztuko du metxa. Hala, une hori baliatuko dute herritarrei mezu eta hitzalditxo bat helarazteko.

### Denboran izoztutako tradizioak

Itsasoko brisak jarduerak dantzazten ditu, baina egitarauan bada «mugiezina» den egun bat: San Pedro eguna. Goizeko meza eta ondorengo hamai-ketakoa, herri kirolen izerdia, toka eta bolo lehiaketen zehaztasuna, eta pilota partiden oihartzuna frontoian. Betikoak, betikoentzat izaten jarraitzen du.

Urteetan zehar tradizio sendoa izan den idi dema, ordea, airean dago aurten; izan ere, abereen artean dabilen dermatosi nodular gaixotasunaren itzalak Eusko Jaurlaritzaren baimenaren zain utzi ditu igeldotarrak.

### Betikoa eta berria

Igeldoko festek jendearentzat iman berezia dute, eta ekitaldi batzuek izugarrizko arrakasta dute: euskal dantza

emanaldia izaten da horietako bat: «Frontoia txiki geratu izan da», adierazi du Barrosok. Herri bazkariak eta berbenek ere pilatzen dute jendea, eta santaixabeletako gauerdiko aureskua ere une berezia izaten da.

Plater fuertea, aldiz, musikaren arloan izango da: aurten poltsikoak pixka bat poztu direnez, Zopilotes Txirriaos taldeak joko du, Barrosoren hitzetan «garai batean pentsaezina zena» errealitate bihurtuz.

## Zopilotes Txirriaos taldearen kontzertua izango da plater fuertea, aurtengo sanpedroetan: «Garai batean, pentsaezina zen»

### Auzolanean, hobeto

Jaien kudeaketaren pisurik handiena Ttonttorro jai batzordeko hiru lagunen sorbaldetan erortzen da, baina herritarren laguntza ezinbestekoa zaie. Hala, festen aurreko astean, herritarrak plaza txukundu, barra muntatu eta herria apaintzeko bildu dira.

Erronkarik handiena 16 eta 20 urte bitarteko gazteen arreta mantentzea izan ohi bada ere, aurten, batzordeak lortu du asmatzea: «Aurtengo kontzertuen eskaintzarekin oso pozik daudela esan digute», adierazi du Barrosok. Igeldok, beraz, besoak zabalik eta plaza prest ditu egun hauetaz gozatzeko. ●



## LARUNBATA 20

**10:30**

Krosa. Igeldoko 43. Igoera Herrikoia. Ondarretatik Mendizorrotzera (7 km).

**12:00**

Kroseko sari banaketa herriko plazan.

**13:00**

Igeldoko VII. Haur krosa.

## ASTEARTEA 23

**17:00**

Txaparroen prestaketa.

**18:30**

San Joan gaueko eskearen hasiera, kaxkoan zehar.

**19:30**

Afari-merienda fajitekin.

**22:00**

Suaren piztea, eta San Joan eskearen jarraipena etxez etxe.

## OSTIRALA 26

**19:00**

Herri tabernaren irekiera eta topa herrikoia.

**20:00**

Ttonttorroren igoera. Ondoren, kalejira txikia, urrezko zezena eta buruhandiekina.

**23:00**

Kontzertuak herriko plazan: Alarma Morea, Laino Beltzak eta Stay Firm. Ondoren, Jaleo DJ-a, kultur etxean.

# GUDAMENDI

Ondo pasa  
Igeldoko San Pedro jaietan!

Gudamendi pasealekua, Igeldo, Donostia · 943-21 40 00  
reservas@hotelgudamendi.com





## LARUNBATA 27

**12:00**

II. Pintxo lehiaketa.

**13:30**

7. San Pedrotako oliba jaitsiera txapelketa.

**14:30**

Herri bazkaria (txartelak salgai IKO eta Txapelan ekainaren 22ra arte: helduak 25€ eta 12 urtetik (hauek barne) beherako haurrak 12€).

**19:00**

Euskal dantza emanaldia frontoian, herriko dantzariekin.

**23:00**

Kontzertuak: Los Zopilotes Txirriaos eta Itzal erromeria.

## IGANDEA 28

**11:00**

Patata tortilla lehiaketa.

**11:30**

Karate ikuskizuna.

**Irutxuloko Hitz**

**12:30-14:00**

Kantujira plazan zehar.

**19:00**

Bertso saioa, herriko plazan:  
Aitor Etxebarriazarraga, Jone Uria,  
Maialen Lujanbio, Maddi Ane Txoperena.

## ASTELEHENA 29

**10:30**

Meza, Antiguako abesbatzarekin.

**11:00**

Hamaiketakoa, Din-Dinera gerturatzen den igeldotar ororentzat.

**12:00**

Herritarren arteko herri kirolak,  
Arkaitz Etxebeste eta Xabier Zaldua  
aizkolariekin.

**18:00**

Toka eta bolo lehiaketa (izen ematea: 17:30-18:30).

**19:30**

Gizonzkoen eskuzko pilota partida, toke  
erdiko pelotarekin: O. Etxeberria - Elorz /  
Lizeaga - Bernaola.

**Ondoren**

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

**22:00**

Idi dema. Igeldo eta Bixkien idiak  
arituko dira elkarren aurka, 1600 kiloko  
harriarekin.

**23:30**

Kontzertua, Iratzar taldearen eskutik.

## ASTEAZKENA 1

**11:00**

Ttonttorro txikiren igoera.

**11:30-13:30**

Uretako puzgarriak.

**13:30**

Haurren bazkari herrikoa  
(5€, egunean bertan, salgai).

**15:00-16:30**

Uretako puzgarriak.

**16:30**

Ginkana mundiala Igeldoko plazatik barrena!  
(2014-2019 bitarte jaiotako haurrentzat;  
ekarri arropa zaharra eta aldatzekoa arropa).

**16:30-18:00**

Uretako puzgarriak 6 urtetik beherako haurrentzat eta gurasoek lagunduta.

**18:00**

Umeentzako merienda.

**18:45**

Haurren pelota partidak.

**Ondoren**

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

**22:00**

Santa Ixabel eskearen irteera plazatik.

## OSTEGUNA 2

**11:00**

Apar festa.

**18:00**

Santa Ixabel eskearen amaiera, kaxkoan zehar.



**19:00**

Bakarriketak herriko plazan: Esti Curiel, Mirari Marti, Asier Galarza eta Ander Malbadi.

**19:30**

Kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin.

**Ondoren**

Ttontorro txikiren jeitsiera.

**22:00**

Zaldi dema: Imanol Mujika eta Aritz Garaiar

abereak arituko dira elkarren aurka, 900 kg-ko harria eta 150 kg-ko gainkargarekin.

**23:30**

Erromeria, Izer eta Alabier trikitilarekin.

**00:00**

Auresku herrikoia eta Ttontororen jaitsiera.

**Ondoren**

Festen amaiera, Izer eta Alabierrekin.



# IGELDO



**Gerturatu eta gozatu!  
Gora sanpedroak!**

Kontzertuak:  
Zopilotes Txirriaos,  
Alarma Morea, Stay Firm,  
Laino Beltzak, Itzal, Iratzar,  
DJ Jaleo, Izer eta Alabier!

**IGELDOKO TOKI ENTITATE TXIKIA**

